

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Irakasleen kontrataziorako zerrendak kudeatzeko Foru Agindua argitaratu da gaur

Berritasunen artean, Epaitegi Gorenaren epaia betez, plazarik gabeko gaitasunen lehentasunezko zerrenda berreskuratzea da

Asteartea, 2018.eko ekainak 19

[Nafarroako Aldizkari Ofizialak](#) gaur argitaratu du 51/2018 Foru Agindua, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritu nahi duten izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituena.

Hezkuntzako Foru Agindu berri honekin Epaitegi Gorenaren epaiarekin betetzen da, zeinak baliogabetzen zituen 55/2016 Foru Aginduaren hainbat artikulua, funtsean plazarik gabeko gaitasunen zerrenda ezabatzen zuena eta era honetan hilabete hauetan zehar egon den hutsune legala konpontzen da.

Lehentasunezko zerrenda berreskuratzeaz gainera, beste hobekuntza batzuk ere gehitu dira hainbat arlotan, hala nola, zerrenda espezifikoa, kontratazio singularretan, hornitzeko zailak diren ikastetxeetan, gaitasun faltagatik kontratuak eteteko prozeduretan eta espezialitate ezberdinak eskaintzeko eskatzen diren tituluen eguneratzean.

Departamentuak orain dela hilabete batzuk ekin zion araua egiteari, Nafarroako Auzitegi Gorenaren epaiaren ondorio gisa. Ildo horretan, testua egiteko eta prestatzeko erabilitako denboran, Departamentua harremanetan izan da hainbat arauagatik kaltetutako hainbat kolektiborekin, baita sindikatuen ordezkariekin ere, ahalegina eginez jasotako eskarien gehiengoak isla izan izan zezan araudian.

Jasotako aldaketa berrienak era progresiboan sartuko dira indarrean datozen hilabeteetan, Foru Agindua bihar bertan sartuko bada indarrean. Asteon hasiko den Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako oposiziotik eratorritako kontratazio-zerrenda Foru Agindu honekin arautuko da, aurretik aipatutako araudi hutsunea konponduz.